

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2008/56/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA, 2008ko ekainaren 17koa, itsas ingurunearen gaineko politikarako
Erkidegoaren ekintza-esparrua finkatzen duena (itsas estrategiari buruzko esparru-zuzentaraua)

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/56/CE DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 17 de junio de 2008, por la que se establece un marco de acción comunitaria para la política del medio marino (Directiva marco sobre la estrategia marina)» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 164/19, 2008/6/25ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ZUZENTARAUAK

**2008/56/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
2008ko ekainaren 17koa, itsas ingurunearen gaineko politikarako Erkidegoaren ekintza-esparrua finkatzen duena
(itsas estrategiari buruzko esparru-zuzentaraua)
(Testu egokia EEEri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratata aztertu dute, eta, bereziki, haren 175. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽¹⁾ aztertu dute,

Eskualdeetako Komitearen irizpena ⁽²⁾ aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura ⁽³⁾ bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Hauek dira Europar Batasuneko subiranotasun eta jurisdikziopean dauden itsas urak: Mediterraneo, Baltikoa, Itsaso Beltza eta Ozeano Atlantikoaren ipar-mendebaldea, Azoreen, Madeiraren eta Kanariar Uharteen inguruko urak barne.

(2) Agerikoa denez, itsasoko natur baliabideen gaineko presioa eta itsasoko zerbitzu ekologikoen eskaera handiegiak dira eta Erkidegoak itsasoko uren gaineko inpaktua murriztu beharra dauka, ondorioak edozein lekutan gertatzen direla ere.

(3) Itsas ingurunea balio handiko ondarea da eta babestu, kontserbatu eta, ahal denean, leheneratu egin behar da, bioaniztasunari eutsi eta ozeano eta itsaso garbi, osasuntsu eta emankorren aniztasun eta bizitasuna zaintzeko. Hala, ingurumenari buruzko gogoetak dagozkion politika guztietan txertatu eta Europar Batasunaren etorkizuneko itsas politikarako zutabeak eman nahi dira Zuzentarau honen bidez.

(4) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1600/2002/EE Erabakiari —2002ko uztailaren 22koa, ingurumenari buruzko Erkidegoko VI. ekintza-programa onartu zuena ⁽⁴⁾— jarraiki, itsas ingurunea babestu eta kontserbatzeko estrategia zehatza onartu zen, itsasoen erabilera iraunkorra bultzatu eta itsasoko ekosistemak babesteko helburu orokorrarekin.

(5) Estrategia hori garatu eta aplikatzean, itsasoko ekosistemen kontserbazioa bilatu behar da. Eredu babestuak ere ikuspegi horretan sartu behar dira eta itsas ingurunean eragina duten gizakion jarduera guztiak hartu behar dira kontuan.

(6) Itsas eremu babestuak sortzea, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauan —1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta fauna eta landaredi basatia kontserbatzeko buruzkoa ⁽⁵⁾ (aurrerantzean «habitatei buruzko Zuzentaraua») —, Kontseiluaren 79/409/EEE Zuzentarauan —1979ko apirilaren 2koa, hegazti basatien kontserbazioari buruzkoa ⁽⁶⁾ (aurrerantzean «hegaztiei buruzko Zuzentaraua») — eta Europako Erkidegoak nahiz gai honekin zerikusia duten estatu kideek sinatutako nazioarteko eta eskualde-mailako hitzarmenetan dagoeneko izendatuta dauden edo izendatzeaz dauden eremuak barne hartuta, oso lagungarria izango da ingurumen-egoera ona lortzeko, Zuzentarau honetan agintzen denari jarraiki.

(7) Zuzentarau honi jarraiki halako eremu babestuak sortzea aurrerapauso garrantzitsua izango da Garapen Iraunkorrerako Mundu-mailako Goi-bileran eta aniztasun biologikoari buruzko Hitzarmenean (Kontseiluaren 93/626/EEE Erabakiaren

(1) C 185 EO, 2006/08/18koa, 20. or.

(2) C 206 EO, 2006/08/29koa, 5. or.

(3) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006ko azaroaren 14koa (C 314 E EO, 2006/12/21ekoa), Kontseiluaren Jarrera Komuna, 2007ko uztailaren 23koa (C 242 E EO, 2007/10/16koa, 11. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2007ko abenduaren 11koa. Kontseiluaren Erabakia, 2008/05/14koa.

(4) L 242 EO, 2002/09/10ekoa, 1. or.

(5) L 206 EO, 1992/07/22koa, 7. or. Azkenik 2006/105/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (L 363 EO, 2006/12/20koa, 368. or.).

(6) L 103 EO, 1979/04/25ekoa, 1. or. Azkenik 2006/105/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua.

2008/56/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 164/19, 2008/6/25ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

bidez onartua) ⁽¹⁾ hartutako konpromisoak betetzeko, eta eremu horiek ordezkatzeko dituzten sare koherenteak sortzen lagunduko du.

(8) Giza jarduerak kudeatzeko ikuspegi ekosistemikoa aplikatuz, itsasoko ondasun eta zerbitzuak modu iraunkorren erabiltzeko aukera ematen da. Horrekin batera, lehenetsia eman behar zaio Erkidegoko itsas ingurune ingurumena zaintzeari eta ingurumen hori ondo mantentzeari, eta hura berriz ez narriatzeko, ingurumen hori babesteari eta kontserbatzeari.

(9) Helburu horiek lortzeko, lege-esparru garden eta koherentea finkatu behar da. Politika desberdinak uztartzen eta ingurumenari buruzko kezak beste politika batzuetan (arrantza-politika bateratuan, nekazaritza-politika bateratuan eta Erkidegoaren bestelako politikan, esate baterako) txertatzen lagundu beharko luke esparru horrek. Lege-esparru horrek jardun orokorrerako esparrua eskaini behar du eta, halaber, aukera eman behar du Erkidegoko beste lege-testu batzuei eta nazioarteko hitzarmenei jarraiki hartutako neurriekin koordinatu eta bateratzeko.

(10) Erkidegoko itsas erregio eta azpi-erregioen egoera, arazoak eta beharrak ugariak eta desberdinak diren aldetik, konponbide espezifiko eta desberdinak eskatzen dituzte. Aniztasun hori aintzakotzat hartu behar da itsas estrategiak prestatzeko fase guztietan, Erkidegoko itsasoetako itsas erregio eta azpi-erregioetan ingurumen-egoera egokia lortzeko neurriak prestatu, planifikatu eta aplikatzeko garaian, bereziki.

(11) Hortaz, estatu kide bakoitzak bere itsas uretarako estrategia prestatu behar du, bere urei begira, baina ur horiek txertatuta dauden erregioa eta azpi-erregioa ere kontuan hartuta. Itsas estrategien bidez lortu behar da aplikatzea ingurumen-egoera ona lortzeko edo egoera onari eusteko neurriak jasotzen dituzten programak. Dena den, estatuei ezin zaie neurri zehatzak hartzerik eskatu itsas inguruneak arrisku berezirik ez badu, edo kostuak neurrigabeak badira, neurririk ez hartzeko erabakiak behar bezala justifikatuta egonez gero.

(12) Itsasertzeko urak, hondoa eta lurpea barne, itsas ingurunearen osagaiak dira eta, halatan, Zuzentarau honen barruan sartzen dira, itsas ingurune ingurumen-egoeraren zenbait alderdi Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentarauak —2000ko urriaren 23koa, itsas politiken esparrurako EBko jarduera-eremua finkatzen duena ⁽²⁾— nahiz Erkidegoko beste inongo legek zuzenean babesten ez dituen aldetik.

(13) Itsas ingurunea mugaz gaindikoa denez, estatu kideek elkarlanean jardun behar dute itsas erregio eta azpi-erregio bakoitzerako itsas estrategiak modu koordinatuan lantzeko. Estrategia horietan zenbait estatu kidek nahiz hirugarren herrialdeek har dezakete parte, eta, hortaz, estatu kideek ahal duten guztia egin behar dute batzuekin nahiz besteekin koordinazio estuan aritzeko. Aukera dagoen eta egokia den guztietan, itsas erregio eta azpi-erregioetan dauden egitura instituzionalen bidez bermatu behar da koordinazio hori, itsasoko itun erregionalen bidez bereziki.

(14) Zuzentarau honek araututako itsas erregio edo azpi-erregio baten barruan mugak dauzkaten estatuek saiatu beharko dute neurri-programa bat prestatzen azkarrago hasteko ekintza-plana adosten, erregio edo azpi-erregio horretako itsasoaren egoera larria den kasuetan. Halakoetan, estatuei itsas ingurunea hobetzeko ahaleginak areagotzen lagun diezaien eskatu behar zaio Batzordeari. Dagokion erregioari programa pilotuak lantzeko aukera eman behar zaio horretarako.

(15) Estatu kide guztiek ez dute Zuzentarau honetan definitutako itsas urik eta, hortaz, Zuzentarau honetako xedapenak itsas ur horiek dituzten estatueta mugatuko dira soil-soilik.

(16) Lankidetzeta eta koordinazioa lortzeko nazioartean jardun beharra dagoenez, Zuzentarau honen bidez areago bateratu behar da, nazioarteko hitzarmenei jarraiki, Erkidegoak eta estatuek egiten duten lana.

(17) Erkidegoak eta estatu kideak Nazio Batuen Itsas Zuzenbideari buruzko Hitzarmeneko (NBIZH) partaideak dira. Hitzarmen hori Kontseiluaren 98/392/EE Erabakiaren —1998ko martxoaren 23koa, Europako Erkidegoak NBIZH onartzeari buruzkoa— eta 1994ko uztailaren 28ko Hitzarmenaren —Hitzarmeneko XI. zatia aplikatzeari buruzkoa— bidez onartu zen ⁽¹⁾. Horrenbestez, hitzarmen horiei jarraiki, Erkidegoak eta estatu kideek dituzten betebeharrak ondo gogoan hartu behar ditugu Zuzentarau honetan. Partaideen itsas uretan aplikatu beharreko xedapenez gain, NBIZHk betebeharrak orokor batzuk finkatzen ditu, partaideren baten jurisdikzioan nahiz kontrolean eragina duten jarduerak partaide haren itsas uretatik haratago kalterik egiten ez dutela, kalte edo arriskuak eremu batetik bestera hedatzen ez direla eta kutsadura-mota bat beste kutsadura-mota bat bihurtzen ez dela ziurtatzearen.

(1) L 309 EO, 1993/12/13koa, 1. or.

(2) L 327 EO, 2000/12/22koa, 1. or. Azkenik 2008/32/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaru (L 81 EO, 2008/03/20koa, 60. or.).

(1) L 179 EO, 1998/06/23koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(18) Zuzentarau honek Erkidegoak aniztasun biologikoari buruzko Hitzarmenaren inguruan hartutako erabaki sendoa babestu behar du; halaber, bioaniztasunari eusteari dagokionez, itsasoko bioaniztasuna kontserbatzen dela eta modu iraunkorrean erabiltzen dela ziurtatu behar du. Horrekin batera, Erkidegoak itsasoko eremu babestuen munduko sarea osatu behar du 2012rako, eta Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmeneko Partaideen VII. Biltzarreko helburuak lortzen lagundu behar du. Biltzar hartan itsasoko eta itsasertzeko bioaniztasunari buruzko programa zehatza onartu zen, eta estatu-, eskualde- eta mundu-mailan aniztasun biologikoaren galera oztopatzeko helburuak, xedeak eta jarduerak finkatu ziren. Itsas ekosistemek ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko duten ahalmena babestu nahi da, halaber. 2012. urtea bitartean, ekologiaren ikuspegitik babestu beharreko itsas eremuen sareak eratu eta kudeatzeko eremu babestuei buruzko lan-programa bat ere martxan jarri zen biltzarrean. Habitategi buruzko Zuzentaruari eta Hegaztiei buruzko Zuzentaruari jarraiki, estatu kideek Natura 2000 lekuak izendatu behar dituzte, eta hori oso lagungarria izango da aipatutako prozesu horretan.

(19) Itsas ingurunea kutsaduratik babesteko nazioarteko hitzarmenei jarraiki, Erkidegoak eta estatu kideek dauzkaten konpromiso eta betebeharrak betetzen lagundu behar du Zuzentarau honek. Hauek dira hitzarmen horietako batzuk: Itsaso Baltikoaren inguruko itsas ingurunea babesteko Hitzarmena, Kontseiluaren 94/157/EE Erabakiaren bidez onartua ⁽²⁾; Atlantikoaren ipar-ekialdeko itsas ingurunea babesteko Hitzarmena, Kontseiluaren 98/249/EE Erabakiaren bidez onartua ⁽³⁾, eta itsas eremuko ekosistemak eta aniztasun biologikoa babestu eta kontserbatzeko buruzko V. eranskin berria eta hari dagokion 3. gehigarria, Kontseiluaren 2000/340/EE Erabakiaren bidez onartuak ⁽⁴⁾; Mediterraneo itsasertzeko erregioa eta itsas ingurunea babesteko Hitzarmena, Kontseiluaren 77/585/EEE Erabakiaren bidez onartua ⁽⁵⁾, eta 1995ean egindako aldaketak, Kontseiluaren 1999/802/EE Erabakiaren bidez onartuak ⁽⁶⁾, eta Mediterraneo itsasoa lurretik datorren kutsaduratik babesteari buruzko Protokoloa, Kontseiluaren 83/101/EEE Erabakiaren bidez onartua ⁽⁷⁾ eta 1996ko aldaketak, Kontseiluaren 1999/801/EE Erabakiaren bidez onartuak ⁽⁸⁾. Era berean, estatu kideek Itsaso Beltza kutsaduratik babesteko Hitzarmenetik sortutako betebeharrak betetzen dituztela ziurtatzen lagundu behar du Zuzentarau honek, Hitzarmen hura sinatzean itsas ingurunea kutsaduratik babesteko konpromiso garrantzitsua hartu baitzuten estatuek. Erkidegoak oraindik ez du Hitzarmena sinatu, baina behatzaile gisa parte hartzen du.

(20) Itsas erregio eta azpi-erregio horietan lurrak dituzten herrialdeak ere gonbidatu egin behar ditugu Zuzentarau honek zabalduko prozesuan parte hartzera, dagokion itsas erregio edo azpi-erregioan ingurumen-egoera ona lortzen laguntzeko, horrela.

(21) Zuzentarau honetako helburuak lortzeko, bateratu egin behar dira babes bereziko esparruetarako finkatutako neurriak betetzeko zehaztutako kontserbazio helburuak, kudeaketa-neurriak eta zainketa- eta ebaluazio-jarduerak. Kontserbazio bereziko eremuak, babes bereziko eremuak eta itsas eremu babestuak sartzen dira babes bereziko esparruen artean.

(22) Aintzakotzat hartu behar dira aniztasun biologikoa eta ur sakoneko inguruneek itsas ikerketak egiteko eskaintzen dituzten aukerak ere.

(23) Itsas estrategiekin bat etorri aplikatutako neurri-programak eraginkorrak izatekotan eremu jakin bateko itsas ingurunearen egoerari buruzko ezaguera sakona behar denez eta neurriok estatu bakoitzean dagozkion uren beharretara ahalik eta ongien egokitu behar direnez, dagokion itsas erregio nahiz azpi-erregio zabalagoa kontuan hartuta betiere, halako politikak behar bezala dokumentatu eta prestatzeko esparru nazionala prestatu behar da, itsasoa ikertzeko eta itsasoaren jarraipena egiteko neurriak ere hor sartuz. Erkidego osoari dagokionez, itsasoari buruzko ikerketarako laguntzak ikerketa eta garapenerako politiketan txertatu behar dira, modu iraunkorrean. Alde horretatik, aurrerapauso handia da ikerketa eta garapenerako VII. esparru-programak itsasoarekin zerikusia duten gaiak kontuan hartzea.

(24) Neurri-programak prestatzeko lehen fasean, itsas erregio edo azpi-erregio bereko estatuek azterketa bat egin behar dute beren itsas uretan, alderdi hauek zehazteko: itsas uren ezaugarri eta berezitasunak, jasaten dituzten presio eta inpaktuak, presio eta inpaktu horien artean handienak zein diren, itsas ingurunea kaltetzeak dakartzan kostuak eta ingurune horren erabileraren azterketa sozioekonomikoa. Erregio-mailako itsas hitzarmenetan lehendik egindako ebaluazioak erabil daitezke azterketa horien oinarritzat.

(2) L 73 EO, 1994/03/16koa, 19. or.

(3) L 104 EO, 1998/04/03koa, 1. or.

(4) L 118 EO, 2000/05/19koa, 44. or.

(5) L 240 EO, 1977/09/19koa, 1. or.

(6) L 322 EO, 1999/12/14koa, 32. or.

(7) L 67 EO, 1983/03/12koa, 1. or.

(8) L 322 EO, 1999/12/14koa, 18. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(25) Azterketa horietatik abiatuta, ingurumen-egoera ona erakusten duten ezaugarriak definitu beharko dituzte estatuek. Horretarako, irizpide eta arau metodologiko batzuk adostu beharko dira, itsas erregio eta azpi-erregio desberdinetako ingurumen-egoera alderatu eta modu koherentean jardun ahal izateko. Egoerarekin zerikusia duten alderdi guztiek parte hartu behar dute irizpide eta arauak finkatzen.

(26) Ingurumen-egoera ona lortu eta hurrengo etapan, ingurumen-helburuak finkatu eta ebaluazio jarraitua egiteko jarraipen-programak zehaztu behar dira, itsas uren egoera etengabe ebaluatu ahal izateko.

(27) Estatu kideek urotan ingurumen-egoera egokia lortzeko edo egoera horri eusteko programak martxan jarri eta aplikatu behar dituzte, indarrean dauden Erkidegoko eta nazioarteko baldintzak betez eta dagokion itsas erregio edo azpi-erregioaren beharrei erantzunez. Zuhurtasunez eta prebentzioa kontuan hartuta hartu behar dira neurriok, ingurumenari eragindako kalteak jatorrian bertan konpondu behar direla eta kutsatzen duenak horregatik ordaindu behar duela gogoan izanik.

(28) Estatu kideek aipatutako bidetik jo beharko lukete, helburuak eskatzen duen doitasuna lortzearen. Hartutako neurriak Erkidego osoan bat datozela ziurtatzearen eta mundu-mailan hartutako konpromisoak betetzearen, estatu kideek hartutako neurrien berri eman behar diote Batzordeari, azken honek dagokion itsas erregio edo azpi-erregioan egindako lanaren koherentzia ebaluatu eta egin beharreko aldaketak proposa ditzan, hala badagokio.

(29) Estatu kideek beharrezko neurriak hartu behar dituzte itsas ingurunearen ingurumen-egoera onari eusteko edo egoera hori lortzeko. Dena den, onartu beharra dago gerta daitekeela 2020a baino lehen itsas ur guztietan ingurumen-egoera ona lortzea edo egoera horri eustea posible ez izatea. Horrenbestez, ekitatea eta bideragarritasuna lortzearen, aurreikusi beharra dago Estatu kideren batek finkatutako ingurumen-helburuak guztiz lortu ez izateko edo ingurumen-egoera onari eutsi edo hura lortu ezin izateko aukera.

(30) Ildo horretatik, bi egoera berezi aurreikusi behar dira hemen. Kasu hauek sartzen dira lehenean: ingurumen-helburuak zerbait egitearen nahiz ez egitearen ondorioz ez lortzea, baina hori gertatzea dagokion estatuaren erantzukizuna ez izatea, edo hori ezinbesteko arrazoiengatik nahiz naturaren eraginez gertatzea, edo estatuak ingurumenaren gaineko kalteari gainjartzen zaizkion lehen mailako interes orokorreko neurriak hartzearen ondorioz gertatzea, edo naturako baldintzek ez badute itsas uren egoera behar bezain laster hobetzerik uzten. Halakoetan, egoera berezi hori eragin duten kausak justifikatu eta kaltetutako eremua zehaztu beharko du estatuak, ingurumen-helburuak lortzeko, kaltetutako itsas uren egoera areago kaltetzea saihesteko eta dagokion itsas erregio nahiz azpi-erregioaren gaineko kalterako eragina murrizten jarraitzeko neurri egokiak hartzearekin batera.

(31) Honatx bigarren egoera berezia: estatu batek arazo bat dauka bere itsas uren ingurumen-egoeran, nahiz itsas ur horiek dauden itsas erregio edo azpi-erregio osoan, baina ezin du arazo hori konpondu estatu-mailan hartutako neurrien bidez, edo arazoak erlazioa dauka EBren beste politika nahiz nazioarteko hitzarmenen batekin. Halakoetan, estatuak egoera horren berri eman beharko dio Batzordeari neurri-programetako jakinarazpen-bideak erabiliz, eta Erkidego mailako neurriak hartu behar izanez gero, dagozkion gomendioak egin beharko dizkie Batzordeari eta Kontseiluari.

(32) Nolanahi ere, kasu bereziarako uzten den malgutasuna Erkidego mailan kontrolatu beharra dago. Lehen egoera berezian, hartutako *ad hoc* neurrien eraginkortasuna hartu behar da kontuan. Gainera, interes orokorrerako ezinbesteko arrazoiengatik hartutako neurriak aipatzen baditu estatuak, itsas ingurunean egindako aldaketek dagokion itsas erregio nahiz azpi-erregioan edo beste estatu kide batzuen itsas uretan ingurumen-egoera ona lortzea behin betiko galarazten ote duten ebaluatu beharko du Batzordeak. Batzordeak pentsatzen badu aurreikusitako neurriak dagokion itsas erregio nahiz azpi-erregioan ekintzen koherentzia ziurtatzeko egokiak edo behar adinakoak ez direla, aldaketak egiteko jarraibideak eman beharko ditu.

(33) Bigarren egoera berezian, Batzordeak egoera aztertu eta erantzun bat eman beharko du sei hilabeteko epean. Hala dagokionean, egoera berezian dagoen estatuak egindako gomendioak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari bidalitako proposamenean sartu beharko ditu Batzordeak.

(34) Itsas ekosistemak dinamikoak eta aldakorak dira berez, eta haien gaineko inpaktu eta presioak giza jardueren eboluzioaren nahiz klima-aldaketaren eraginez aldatzen dira, gainera. Hori dela eta, gogoan izan behar dugu denboran zehar alda daitekeela ingurumen-egoeraren ebaluazioa. Horregatik, itsas ingurunea babestu eta kudeatzeko neurri-programek malguak eta erraz egokitzeko modukoak izan behar dute eta aintzat hartu behar dituzte zientzian eta teknologian egondako aurrerapenak. Itsas estrategiak aldiro-aldiro eguneratzen joatea komeni da, beraz.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(35) Bestalde, neurri-programak eta eguneraketak argitaratu behar dira, eta programak aplikatzeko garaian izandako aurrerapenen berri ematen duten tarteko txostenak Batzordeari aurkeztu behar zaizkio.

(36) Jendeak itsas estrategiak prestatzen, gauzatzen eta eguneratzen aktiboki parte hartu ahal izan dezan, estrategia horietako alderdi desberdinei eta eguneraketei buruzko informazio egokia zabaldu behar da, bai eta itsas estrategiak lantzeko erabilitako informazioa ere, inork eskatuz gero, jendeak ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeari buruzko Erkidegoko legeekin bat etorritz.

(37) Zuzentarau honen aplikazioari buruzko lehen ebaluazio-txostena aurkeztu behar du Batzordeak neurri-programa guztiak jaso eta bi urteko epean edo 2019a baino lehen, beranduenez. Hortik aurrera, sei urtetik behin argitaratuko dira Batzordearen txostenak.

(38) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/2/EE Zuzentaruarekiko —2007ko martxoaren 14koa, informazio espazialerako azpiegitura (Inspire) eratzen duena Europar Batasunean ⁽¹⁾— bateragarritasuna ziurtatzearen, arau metodologiko batzuk onartu behar dira itsas ingurunearen egoera ebaluatu, jarraipena egin eta ingurumen-helburuak finkatzeko, bai eta datuak bidali eta lantzeko erabili beharreko formatu teknikoak zehazteko ere.

(39) Arrantzaren kudeaketa arautzen duten neurriak Kontseiluaren 2371/2002 (EE) Erregelamenduan —2002ko abenduaren 20koa, arrantza-politika bateratuari jarraiki arrantza-baliabideak modu iraunkorrean ustiatu eta kontserbatzeari buruzkoa (2)— zehaztutako arrantza-politika bateratuaren barruan onar daitezke, irizpen zientifikoak kontuan hartuta eta Zuzentarau honetako helburuak lortzeko asmoarekin. Ereku jakin batzuk guztiz leheneratzeko edo dauden egoeran mantentzeko arrantza-eremu batzuk guztiz ixtea erabaki liteke, ekosistemen egitura, funtzionamendua eta segurtasuna ziurtatzearen eta, hala dagokionean, ugaltzeko, kumeak hazteko eta elikatzekeo eremuak babesteko, besteak beste. Gai erradioaktiboak erabiltzetik sortutako isurketa eta igorpenak araututa daude Euratom Tratatuako 30. eta 31. artikuluetan, eta Zuzentarau honetatik kanpo gelditzen dira, beraz.

(40) Arrantza-politika bateratuak kontuan hartu beharko litzuke arrantzak ingurumenean daukan eragina eta Zuzentarau honen helburuak, aurrerago politika hori aldatuz gero ere.

(41) Estatu kideek aipatutako esparruetan edo Erkidegoko politikekin nahiz nazioarteko hitzarmenekin zerikusia duten beste esparru batzuetan esku hartu beharra dagoela iritzi gero, Erkidegoko jarduna gidatzeko gomendioak aurkeztu beharko dituzte.

(42) Erkidegoko erakundeek ingurumenarekiko kezka larriak, klima-aldaketak Artikoko uretan —Erkidegoarentzat garrantzi handia duen itsas ingurunea— eragindako ondorioek eragindakoak bereziki, balioetsi beharko dituzte, eta Artikoko ingurumena babesteko neurriak ere har litzakete, behar izanez gero.

(43) Zuzentarau honen helburua itsas ingurunea babestu eta kontserbatzea, hura hondatzea galaraztea eta, bideragarria den kasuetan, hondatutako eremuak leheneratzea izanik, estatu kideek beren kasa bakarrik helburu horiek lortzerik ez dutenez, Zuzentarau honen hedaduraren eta eraginaren ondorioz, helburu horiek Erkidego mailan hobeto lor daitezke. Hori dela eta, Erkidegoak dagozkion neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Zuzentarau hau ez da helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago joango.

(44) Onartutako neurri-programek eta haiei jarraiki estatuak hartzen dituzten neurriek giza jarduerak kudeatzeko ikuspegi ekosistemikoan oinarritu behar dute, batetik, eta Tratatuaren 174. artikuluan finkatutako printzipioetan —zuhurtasun-printzipioan bereziki—, bestetik.

(45) Zuzentarau honek oinarritzko eskubideak errespetatzen ditu eta Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunean ⁽¹⁾ jasotako printzipioak betetzen ditu, Gutuneko 37. artikuluari dagokionez bereziki. Artikulu hori saiatzeko Erkidegoak ingurumena albat gehien babesteko eta ingurumenaren kalitatea hobetzeko dauzkan politikak bateratzen, garapen iraunkorraren printzipioarekin bat etorritz betiere.

(1) L 108 EO, 2007/04/25ekoa, 1. or.

(1) C 364 EO, 2000/12/18koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(46) Zuzentarau hau betearazteko behar diren neurriak Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiarekin —1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari dagozkion eskumenak gauzatzeko prozedurak finkatzen dituena⁽²⁾— bat etorritz onartu behar dira.

(47) Horretarako, eskumen batzuk eman beharko zaizkio Batzordeari, Zuzentarau honetako III., IV. eta V. eranskinak zientzian eta teknikan izandako aurrerapenetara egokitu ditzan. Neurri horiek orokorrean bete beharrekoak direnez eta Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituztenez, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

(48) Era berean, eskumenak eman behar zaizkio Batzordeari, estatu kideek erabili beharreko irizpide eta arau metodologikoak finkatu eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko zehaztapen eta metodo normalizatuak onartzeko. Neurri horiek orokorrean bete beharrekoak direnez eta Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituztenez, funtsezkoak ez diren alderdi berriekin osatuz, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Helburua

1. Zuzentarau honen bidez ezartzen da estatu kideek 2020rako itsas ingurunean ingurumen-egoera ona lortzeko edo egoera horri eusteko beharrezko neurriak hartu ahal izateko esparrua.

2. Horretarako, itsas estrategia batzuk prestatu eta aplikatuko dira, xede hauek lortzearen:

a) itsas ingurunea babestea eta zaintzea, hura hondatzea galaraztea eta, ahal den neurrian, kaltetutako eremuetako itsas ekosistemak leheneratzea;

b) itsas ingurunean egindako isurketak prebenitzea eta gutxitzea, kutsadura pixkanaka ezabatuz joateko, 3. artikuluko 8. paragrafoan zehaztutako moduan, itsasoko bioaniztasunean, itsas ekosistemetan, gizakion osasunean eta itsasoaren erabilera legitimoetan inpakturik eta arrisku larrik ez eragiteko helburuz.

3. Itsas estrategietan ikuspegi ekosistemikoa erabiliko da giza jarduerak kudeatzeko garaian, eta ziurtatu beharko da jarduera horien guztien eragina ingurumen-egoera ona lortzeko moduko mailara mugatzen dela eta itsas ekosistemek gizakiok eragindako aldaketei erantzuteko daukaten ahalmena ez dela zapuzten, oraingo nahiz etorkizuneko belaunaldiei itsasoko ondasun eta zerbitzuak modu iraunkorrean erabiltzeko aukera emanez.

4. Zuzentarau honek itsas ingurunean eragina duten politika, hitzarmen eta legezko neurriak bateratzen lagunduko du, eta ingurumena baliabide horietan aintzat hartzen dela ziurtatzen saiatuko da.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Zuzentarau hau itsas ur guztiei aplikatuko zaie, 3. artikuluko 1. puntuan emandako definizioari jarraiki, eta aintzat hartuko du itsas erregio edo azpi-erregio bereko beste herrialde batzuek itsas ingurunearen kalitatearen gainean duten mugaz gaindiko eragina ere.

2. Zuzentarau hau ez zaie bakarrik defentsa eta segurtasun nazionala xedetzat duten jardueri aplikatuko. Halere, jarduera horiek, ahal den heinean, modu zentzuzko eta gauzagarrian eta Zuzentarau honen helburuekin bat etorritz egiten direla ziurtatzen saiatu beharko dute estatuak.

3. artikulua

(2) L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatutako Erabakia (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.).

Definizioak

Zuzentarau honi dagokionez, honako termino hauek honela ulertuko dira:

1) «Itsas urak»:

a) herrialde baten jurisdikziopeko lurren zabalera neurtzeko oinarritzat erabiltzen den lerrotik haratago dauden urak, hondoa eta lurpea barne. Estatu kide batek, NBIZHrekin bat etorritz, eskubide jurisdikzionalak dituen edo gauzatzen dituen eremuaren kanpoaldeko mugaraino luzatzen dira urok. Hortik kanpo gelditzen dira Tratatu II. eranskinean aipatzen diren herrialde eta lurraldeen ondoko urak eta Frantziaren itsasoz haraindiko departamentu eta kolektiboak;

b) 2000/60/EE Zuzentarauari jarraiki definitutako itsasertzeko urak, itsas hondoa eta lurpea barne, itsas ingurunearen ingurumen-egoerari dagozkion zenbait alderdi Zuzentarau horrek nahiz Erkidegoaren beste inongo legek zuzenean babesten ez dituzten aldetik.

2) «Itsas erregioa»: 4. artikuluari jarraiki, halakotzat izendatua izan den itsasoko erregioa. Itsas erregio eta azpi-erregioak Zuzentarau hau aplikatzen laguntzeko definituko dira, haien ezaugarri hidrologiko, ozeanografiko eta biogeografikoak kontuan hartuta.

3) «Itsas estrategia»: 5. artikulua agindutakoari jarraiki, dagozkion itsas erregio eta azpi-erregioetan aplikatu eta landu beharreko estrategiak.

4) «Ingurumen-egoera»: itsas uretako ingurumen-egoera orokorra, alderdi hauek kontuan hartuta: itsas ingurunea osatzen duten ekosistemen egitura, funtzioak eta prozesuak; faktore fisiografiko, geografiko, biologiko, geologiko eta klimatiko naturalak, eta bereziki giza jarduerak dagozkion eremuaren barruan nahiz kanpoan eragindako baldintza fisiko, akustiko eta kimikoak.

5) «Ingurumen-egoera ona»: ozeano eta itsaso ekologikoki ugari, dinamiko, (eta beren baldintza intrintsekoen barruan) osasuntsu eta emankorrek egotea eragiten duen itsas uren ingurumen-egoera. Egoera horretan modu iraunkorrean erabiltzen da itsas ingurunea, eta haren erabilera eta jarduera potentzialak oraingo nahiz geroko belaunaldietarako babesten dira, hau da:

a) itsas ingurunea osatzen duten ekosistemen egitura, funtzioak eta prozesuak, faktore fisiografiko, geografiko, geologiko eta klimatikoekin batera, ekosistemek bete-betean funtzionatzeko modukoak dira eta gizakiek ingurumenean eragindako aldaketei aurre egiteko gaitasuna daukate. Itsasoko espezieak eta habitatak babestuta daude, gizakien eraginez bioiztasuna galtzea galarazten da, eta osagai biologiko desberdinek modu orekatuan jarduten dute;

b) ekosistemen propietate hidromorfologiko, fisiko eta kimikoek, dagozkion eremuan giza jarduerak eragindakoak barne, goian adierazitako moduan mantentzen dituzte ekosistemak. Gizakiek itsas ingurunean isuritako gaiak eta energiak, zarata barne, ez dute kutsadurarik eragiten. Ingurumen-egoera ona 4. artikuluan aipatutako itsas erregio edo azpi-erregio mailan aztertuko da, I. eranskineko deskribatzaile kualitatiboak oinarritzat hartuta. Moldaeran oinarritutako kudeaketa erabiliko da, ikuspegi ekosistemikoari jarraiki, ingurumen-egoera ona lortzearren.

6) «Irizpideak»: deskribatzaile kualitatiboekin lotura estua duten ezaugarri teknikoak.

7) «Ingurumen-helburua»: itsas erregio eta azpi-erregio bakoitzeko itsas uren osagai desberdinetarako nahi den egoera, bai eta ur horien gaineko presio eta inpaktuak, kualitatiboki nahiz kuantitatiboki adierazita. Ingurumen-helburuak 10. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritz finkatu behar dira.

8) «Kutsadura»: giza jardueraren eraginez, itsas ingurunean, zeharka nahiz zuzenean, gaiak eta energia sartzea, giza jatorriko urpeko soinu-iturriak barne, halakoek kalteren bat eragiten badute edo eragin badezakete; hala nola, kalteak itsas ekosistemetan eta baliabide bizietan, bioiztasunaren galera, esaterako; giza osasunerako arriskuak; itsas jardueretarako oztopoak, arrantzan, turismoan, aisialdiko jardueretan eta itsasoaren gainerako erabilera legitimoetan bereziki; itsas uren kalitatea gutxitzea, olgetarako duen balioa gutxitu eta uron erabilera mugatzeko adinakoa bada edo, orokorrean, itsasoko ondasun eta zerbitzuak modu iraunkorrean erabiltzeko aukera murrizten badu.

9) «Erregio-mailako lankidetzak»: jarduerak estatu kideen artean eta, ahal den guztietan, itsas erregio edo azpi-erregio bereko beste herrialde batzuekin batera koordinatzea eta denon artean lankidetzan aritzea, itsas estrategiak prestatu eta aplikatzeko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

10) «Itsasoko itun erregionala»: 4. artikuluan aipatzen diren itsas erregioetako itsas ingurunea babesteko sinatutako itun eta nazioarteko hitzarmen guztiak, haien aginte-organoekin batera, hala nola, Itsaso Baltikoko itsas ingurunea babesteko Hitzarmena, Atlantiko ipar-ekialdeko itsas ingurunea babesteko Hitzarmena eta Mediterraneo itsasertzeko erregioa babestekoa.

4. artikulua

Itsas erregio eta azpi-erregioak

1. Estatu kideek Zuzentarau honi jarraiki dituzten betebeharrak betetzeko garaian, kontuan hartu beharko dute beren subiranotasun edo jurisdikziopeko itsas urak ondoren zehazten diren itsas erregioetako zeinetan dauden:

- a) Itsaso Baltikoa;
- b) Ozeano Atlantikoaren ipar-ekialdea;
- c) Mediterraneo itsasoa;
- d) Itsaso Beltza.

2. Eremu jakin baten berezitasunak kontuan hartzearen, Zuzentarau hau aplikatzeko garaian azpi-banaketak egin ahal izango dituzte estatuek, 1. paragrafoan aipatutako itsas uretan, azpi-banaketa horiek honako azpi-erregio hauekin bateragarriak baldin badira:

- a) Atlantiko ipar-ekialdean:
 - i) Ipar Itsasoa, adiera zabalean, Kattegat eta Mantxako kanala barne
 - ii) Itsaso Zeltikoa
 - iii) Bizkaiko golkoa eta iberiar itsasertza
 - iv) Ozeano Atlantikoan, Azoreen, Madeiraren eta Kanariar uharteen inguruko urek osatzen duten erregio biogeografiko makaronesikoa
- b) Mediterraneoan:
 - i) Mediterraneoaren mendebaldea
 - ii) Itsaso Adriatikoa
 - iii) Itsaso Jonikoa eta Mediterraneo erdialdea
 - iv) Egeo itsasoaren ekialdea. Estatu kideek azpi-banaketa guztien berri eman behar diote Batzordeari, 26. artikuluko 1. paragrafoko 1. zatian adierazitako data baino lehen. Dena den, azpi-banaketa horiek berrikustea izango dute, 5. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatiko i) tartekian aipatzen den hasierako ebaluazioa amaitutakoan.

5. artikulua

Itsas estrategiak

1. Estatu kide bakoitzak itsas estrategia bana prestatuko du kaltetutako itsas erregio edo azpi-erregio bakoitzeko, 2. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan aipatzen den ekintza-planarekin bat etorritz.

2. Itsas erregio edo azpi-erregio berean dauden estatuek lankidetzan jardungo dute itsas erregio eta azpi-erregio guztietan Zuzentarau honetako helburuak lortzeko beharrezko neurriak hartzen direla ziurtatzeko, a) eta b) idatz-zatietan aipatutako itsas estrategietako alderdi desberdinak koherenteak direla eta dagokion itsas erregio edo azpi-erregioan koordinatzen

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

direla ziurtatzeko, bereziki. Hori guztia honako ekintza-planari jarraiki egingo dute estatuek, horretarako ikuspegi bateratua erabiliz:

a) Prestaketa:

i) kaltetutako itsas uren eta giza jarduerak urotan eragindako ingurumen-inpaktuaren hasierako ebaluazioa egitea, 2012ko uztailaren 15ean beranduenez, 8. artikuluan agindutako moduan;

ii) uron ingurumen-egoera ona definitzea, 2012ko uztailaren 15ean beranduenez, 9. artikuluko 1. paragrafoan agindutako moduan;

iii) ingurumen-helburu batzuk eta haiei lotutako adierazle batzuk finkatzea, 2012ko uztailaren 15ean beranduenez, 10. artikuluko 1. paragrafoan agindutako moduan,

iv) etengabeko jarraipena egiteko eta helburuak aldiro-aldiro eguneratzeko programa bat osatzea eta aplikatzea, 2014ko uztailaren 15ean beranduenez, Erkidegoan indarrean dagoen legeriak besterik ez badio behintzat, 11. artikuluko 1. paragrafoan agindutako moduan.

b) Neurri-programak:

i) ingurumen-egoera ona lortzeko edo egoera onari eusteko neurri-programa bat prestatzea, 2015ean beranduenez, 13. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoetan agindutako moduan;

ii) i) tartekian aipatutako programa martxan jartzea, 2016an beranduenez, 13. artikuluko 10. paragrafoan agindutakoari jarraiki.

3. Zuzentarau honek araututako itsas erregio edo azpi-erregio baten barruan mugak dauzkaten estatuek ekintza-plana onartu beharko dute neurri-programa bat prestatzen azkarrago hasteko, 1. paragrafoarekin bat etorritik, erregio edo azpi-erregio horretako itsasoaren egoera larria den kasuetan. Horrekin batera, babes-neurri zorrotzagoak onartu ahal izango dituzte, horrek beste itsas erregio edo azpi-erregio baten ingurune-egoera ona lortzea edo egoera on horri eustea galarazten ez badu. Halakoetan:

a) estatu kide horiek beren egutegi berrikusiaren berri eman beharko diote Batzordeari eta dagokion moduan jardungo dute;

b) estatuei itsas ingurunea hobetzeko ahaleginak areagotzen lagun diezaien eskatuko zaio Batzordeari, dagokion erregioari proiektu pilotua egiteko aukera emanaz.

6. artikulua

Erregio-mailako lankidetzak

1. 5. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den lankidetzak lortzearen, dagoeneko indarrean dauden erregio-mailako egitura instituzionalak —dagoeneko itsas erregio edo azpi-erregiorako itsasoko itun erregionalei jarraiki eratutako egiturak, adibidez— erabiliko dituzte estatuek, egokia eta bideragarria den kasuetan.

2. Itsas estrategiak sortu eta aplikatzeko, itsas erregio edo azpi-erregio bakoitzeko estatuek ahal duten guztia egingo dute beren ekintzak itsas erregio edo azpi-erregio bereko uren gaineko subiranotasun eta jurisdikzioa daukaten beste herrialde batzuekin koordinatzeko. Dagozkion nazioarteko foroetara eta itsasoko itun erregionaletako egitura eta mekanismoetara joko dute horretarako.

Hala, nazioarteko hitzarmenetatik sortutako egituren barruan (itsasoko itun erregionalen barruan, adibidez), estatu kideak saiatuko dira ahal den neurrian aurretiaz dauden programa eta jardueretan oinarritzen.

Lankidetzak eta koordinazioa itsas erregio edo azpi-erregio bateko aroko estatu kide guztietara (itsasertzik gabeko herrialdeak barne) hedatuko da, ahal dela, itsas erregio edo azpi-erregio horretako estatuek Zuzentarau honi jarraiki dagozkien betebeharrak bete ahal izan dituzten. Zuzentarau honetan nahiz 2000/60/EE Zuzentzarauan finkatutako lankidetzak egiturak erabili ahal izango dituzte horretarako.

7. artikulua

2008/56/EE Zuzentzaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 164/19, 2008/6/25koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Eskumeneko agintariak

1. Estatu kideek Zuzentarau hau beren itsas uretan aplikatzeaz arduratuko diren eskumeneko agintariak izendatu beharko dituzte kaltetutako itsas erregio edo azpi-erregio bakoitzerako, 2010eko uztailaren 15erako beranduenez.

2011ko urtarrilaren 15erako, berriz, izendatutako eskumeneko agintarien zerrenda jakinarazi beharko diote estatuek Batzordeari, II. eranskinean aipatutako informazioarekin batera.

Era berean, Batzordeari jakinarazi beharko diote estatuek parte hartzen duten nazioarteko erakundeetan dituzten agintari nazionalen zerrenda, erakunde horiek Zuzentarau honen aplikazioarekin zerikusia duten kasuan.

Itsas erregio edo azpi-erregio bakoitzaren barruko arroan dauden estatu kideek ere 6. artikuluan aipatutako lankidetzeta eta koordinazioa egingo duten eskumeneko agintariak izendatu beharko dituzte.

2. 1. paragrafoari jarraiki jakinarazitako informazioan izandako aldaketa guztien berri eman beharko diote estatu kideek Batzordeari, aldaketa indarrean sartu eta sei hilabeteko epean.

II. KAPITULUA

ITSAS ESTRATEGIAK: PRESTAKETA

8. artikulua

Ebaluazioa

1. Itsas erregio edo azpi-erregio bakoitzean hango uren hasierako ebaluazioa egin beharko dute estatu kideek, lehendik dauden datuak kontuan hartuta, halakorik badago, bai eta beste alderdi hauek ere:

a) Uren oraingo ingurumen-egoeraren eta funtsezko ezaugarri eta berezitasunen azterketa, III. eranskineko 1. taulan jasotako alderdien zerrendan oinarrituta, eta adierazle fisiko-kimikoak, habitat-motak, adierazle biologikoak eta hidromorfologia kontuan hartuta.

b) Uron ingurumen-egoeran eragina duten inpaktu eta presio nagusien azterketa, giza jarduerak barne hartuta, baldintza hauek betez:

i) III. eranskineko 2. taulan jasotako alderdien zerrendan oinarrituta egotea eta presio desberdinen ezaugarri kualitatibo eta kuantitatiboak aipatzea, bai eta antzematen diren joerak ere,

ii) efektu metakor eta sinergiko nagusiak aipatzea, eta

iii) Erkidegoan indarrean dagoen legeriari jarraiki egindako antzeko ebaluazioak kontuan hartzea.

c) Uron erabileraren azterketa ekonomiko eta soziala, eta itsas ingurunea kaltetzeak dakartzan kostuena.

2. 1. paragrafoan aipatutako azterketek kontuan hartuko dituzte Erkidegoan indarrean dagoen legeriako xedapenetan eta, bereziki, 2000/60/EE Zuzentaruaren aipatzen diren itsasertzeko urekin, trantsizioko urekin eta jurisdikziopeko urekin zerikusia duten alderdiak. Gaiarekin zerikusia duten beste ebaluazio batzuk ere aintzakotzat hartu beharko dira, itsasoko itun erregionalen barruan egindako azterketa bateratuak adibidez, horrela, itsas ingurunearen egoerari buruzko ebaluazio orokorra aurkezteko.

3. 1. paragrafoan aipatzen den ebaluazioa prestatzeko garaian, estatuak saiatuko dira honako baldintzak betetzen direla ziurtatzen, 5. eta 6. artikuluen bidez finkatutako koordinazioaren bitartez:

a) ebaluazio-metodo berberak erabiltzen direla itsas erregio edo azpi-erregio osoan; eta

b) mugaz gaindiko inpaktuak eta mugaz gaindiko ezaugarri bereziak kontuan hartzen direla.

2008/56/EE Zuzentaruua (EBren Egunkari Ofiziala, L 164/19, 2008/6/25ekoa)

9. artikulua

Ingurumen-egoera onaren definizioa

1. 8. artikuluko 1. paragrafoarekin bat etorritik egindako lehen ebaluazioa erreferentziatzen hartuta, estatu kideek ingurumen-egoera onari dagozkion ezaugarriak finkatuko dituzte kaltetutako itsas erregio edo azpi-erregio bakoitzeko uretarako, I. eranskineko deskribatzaile kualitatiboetan oinarrituta.

III. eranskineko 1. taulan jasotako alderdien zerrendak aintzat hartu beharko dituzte estatuek, adierazle fisiko-kimikoak, habitat-motak, adierazle biologikoak eta hidromorfologia bereziki.

Era berean, giza jarduerak itsas erregio eta azpi-erregio bakoitzean eragindako presio eta inpaktuak ere kontuan hartu beharko dituzte, III. eranskineko 2. taulan jasotako zerrendak oinarritzen hartuta.

2. 8. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki egindako ebaluazioaren berri eman beharko diote estatu kideek Batzordeari, eta artikuluko honetako 1. paragrafoari jarraiki finkatutako definizioa jakinarazi beharko diote, halaber, definizioa finkatu eta hiru hilabeteko epean.

3. Estatu kideek erabili beharreko irizpide eta arau metodologikoak, Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzen dituztenak, 25. artikuluko 3. paragrafoan finkatutako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik eta I. eta III. eranskinak oinarritzen hartuta onartuko dira, 2010eko uztailaren 15a baino lehen, koherentzia ziurtatu eta itsas erregio eta azpi-erregio bakoitzean ingurumen-egoera ona zenbateraino lortzen ari diren alderatu ahal izateko. Irizpide eta arau horiek proposatu aurretik, halere, gaiarekin zerikusia duten alderdi guztiak —itsasoko itun erregionalak barne— kontsultatuko ditu Batzordeak.

10. artikulua

Ingurumen-helburuen definizioa

1. 8. artikuluko 1. paragrafoan agindutakoari jarraiki egindako hasierako ebaluazioa oinarritzen hartuta, beren itsas uretarako ingurumen-helburuen eta haiei lotutako adierazleen zerrenda xehakatu finkatuko dute estatu kideek itsas erregio eta azpi-erregio bakoitzerako, itsas ingurunean ingurumen-egoera ona lortzeko prozesua bideratzeko. Horretarako, aintzat hartu beharko dituzte III. eranskineko 2. taulan jasotako inpaktu eta presioen zerrendak eta IV. eranskineko ezaugarrien zerrendak ere. Helburu eta adierazle horiek finkatzean, estatuek kontuan hartu beharko dute estatu-mailan, Erkidego-mailan eta nazioartean indarrean dauden ingurumen-helburuak urotan aplikatzen jarraitu beharra dagoela. Horrekin batera, ziurtatu beharko dute helburuok bateragarriak direla eta mugaz gaindiko inpaktuak eta mugaz gaindiko berezitasunak aintzat hartzen direla.

2. Estatuek ingurumen-helburuak finkatu eta hiru hilabeteko epean haien berri eman beharko diote Batzordeari.

11. artikulua

Jarraipen-programak

1. 8. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki egindako hasierako ebaluazioa oinarritzen hartuta, beren itsas uren ingurumen-egoera etengabe ebaluatzeko jarraipen-programa koordinatuak prestatu eta aplikatuko dituzte estatu kideek. Horretarako, aintzat hartu beharko dituzte III. eta IV. eranskinetan jasotako alderdien zerrendak eta 10. artikuluari jarraiki finkatutako ingurumen-helburuak. Jarraipen-programek bateragarriak izan behar dute itsas erregio eta azpi-erregioen barruan, eta Erkidegoko legeriak ebaluazioa eta jarraipena egiteari buruz finkatutako xedapenetan (habitategi eta hegazti buruzko zuzentarauak barne) nahiz nazioarteko hitzarmenetan oinarrituko dira, eta bateragarriak izango dira haiekin.

2. Itsas erregio edo azpi-erregio berean dauden estatu kideek koordinazioa eta koherentzia ziurtatzeko jarraipen-programak prestatuko dituzte, 1. paragrafoarekin bat etorritik, eta baldintza hauek betetzen ahaleginduko dira:

a) jarraipen-metodo berberak erabiltzen direla itsas erregio edo azpi-erregio osoan, emaitzak elkarren artean alderatu ahal izateko;

b) mugaz gaindiko inpaktuak eta mugaz gaindiko ezaugarri adierazgarriak kontuan hartzen direla.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Estatuek jarraipen-programak finkatu eta hiru hilabeteko epean haien berri eman beharko diote Batzordeari.

4. 25. artikuluko 3. paragrafoan finkatutako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira jarraipena eta ebaluazioa egitean lortutako emaitza alderagarriak ematen dituzten eta lehendik dauden konpromisoak gogoan hartzen dituzten jarraipen- eta ebaluazio-metodo normalizatuak eta zehaztapenak, Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzen dituztenak.

12. artikulua

Batzordearen jakinarazpenak eta ebaluazioa

9. artikuluko 2. paragrafoan, 10. artikuluko 2. paragrafoan eta 11. artikuluko 3. paragrafoan agindutakoari jarraiki, itsas erregio eta azpi-erregio bakoitzari buruz egin beharreko jakinarazpen guztiak oinarritzat hartuta, Batzordeak ebaluatuko du jakinarazitako horrekin Zuzentarau honetako baldintzak betetzen diren, estatu kide guztien kasuan; eta, horrez gain, eskuragarri duten eta beharrezkoa den gainerako informazio guztia bidaltzeko eskatu ahal izango die estatuei. Bere ebaluazioa egitean, itsas erregio desberdinetan finkatutako taulen eta Erkidego osoari dagokionaren arteko koherentzia aztertuko du Batzordeak. Jakinarazpenak jaso eta sei hilabeteko epean, bere iritziz, jakinarazitako alderdiak Zuzentarau honekin bateragarriak ote diren adieraziko die Batzordeak interesa duten estatuei, eta egokitzat jotzen dituen aldatetegi buruzko jarraibideak emango ditu, halaber.

III. KAPITULUA

ITSAS ESTRATEGIAK: NEURRI-PROGRAMAK

13. artikulua

Neurri-programak

1. Kaltetutako itsas erregio edo azpi-erregio bakoitzean, beren itsas uretan ingurumen-egoera ona lortzeko edo egoera onari eusteko behar diren neurriak finkatu beharko dituzte estatuek, 9. artikuluko 1. paragrafoan agindutako moduan.

Neurri horiek 8. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki egindako hasierako ebaluazioaren arabera prestatuko dira, 10. artikuluko 1. paragrafoan finkatutako ingurumen-helburuei erreferentzia eginez eta VI. eranskinean aipatutako neurri-motak kontuan hartuta.

2. Estatu kideek 1. paragrafoari jarraiki hartutako neurriak neurri-programa batean jasoko dituzte, Erkidegoko legeriari jarraiki hartu beharreko bestelako neurriak ere aintzat hartuta, bereziki: 2000/60/EE Zuzentaraua, Kontseiluaren 91/271/EEE Zuzentaraua —1991ko maiatzaren 21ekoa, hirietako hondakin-uren tratamenduari buruzkoa ⁽¹⁾— eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/7/EE Zuzentaraua —2006ko otsailaren 15ekoa, bainatzeko uren kalitatearen kudeaketari buruzkoa ⁽²⁾—, bai eta ur-politiken esparruan Erkidegoak onartzen dituen ingurumen-kalitateko bestelako legeak eta nazioarteko itunak ere.

3. 2. paragrafoan aipatutako neurri-programa osatzeko garaian, estatuek kontuan hartu beharko dituzte bai garapen iraunkorra bai hartutako neurriek gizartearen eta ekonomian izango duten eragina. 7. artikuluan aipatutako eskumeneko agintariei beren helburuak modu bateratuan lortzen laguntzeko, estatu kideek lankidetzaren horretan laguntzeko administrazio-esparruak sortu nahiz finkatu ahal izango dituzte.

Hartutako neurriak teknikoki bideragarriak eta errentagarriak direla ziurtatu beharko dute estatuek eta, neurri berriak onartu aurretik, izango duten eragina ebaluatuko dute, kostuen eta onuren azterketa bat ere eginez.

4. Artikulu honi jarraiki prestatutako neurri-programetan, itsas eremu babestuen sare koherenteak eratzen laguntzen duten espazioa babesteko neurriak sartuko dira. Halakoek eremu horietako ekosistemen aniztasuna behar bezala babestu beharko dute, hala nola, Habitategi buruzko Zuzentaruari jarraiki eratutako kontserbazio bereziko eremuak, Hegaztiei buruzko

(1) L 135 EO, 1981/05/30ekoa, 40. or. Azkenik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatutako Zuzentaraua (L 284 EO, 2003/10/31koa, 1. or.).

(2) L 64 EO, 2006/03/4koa, 37. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Zuzentarauari jarraiki eraturako babes bereziko eremuak eta, sinaturako nazioarteko nahiz erregio-mailako hitzarmenei jarraiki, Erkidegoak nahiz estatu kideek finkaturako itsas eremu babestuak.

5. Estatu kideen iritziz Erkidego-mailan nahiz nazioartean kudeaturako giza jarduera batek itsas ingurunean eragin nabarmena izango bada, 4. paragrafoan aipaturako eremuetan bereziki, eskumeneko agintariengana nahiz dagokion nazioarteko erakundera joko dute, banaka nahiz taldean, Zuzentaru honetako helburuak lortzeko beharrezkoak izan litezkeen neurriak aztertu eta, behar izanez gero, neurriok hartzeko, horrela, ekosistemen egitura, funtzionamendua eta segurtasuna mantendu eta, hala dagokionean, leheneratzearen.

6. Estatu kideek 4. eta 5. paragrafoetan aipaturako eremuei buruzko informazio egokia argitaratu beharko dute 2013a baino lehen, estatu horien itsas erregio edo azpi-erregio bakoitzeko.

7. Neurri-programetan neurriok aplikatzeko xedapenak jaso beharko dituzte estatuak, 10. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki finkaturako ingurumen-helburuak lortzen nola laguntzen duten azaltzearekin batera.

8. Beren neurri-programek beren itsas uretatik haratagoko uretan izango dituzten ondorioak ere aintzat hartu beharko dituzte estatuak, kalteak eragiteko arriskuak albatz gehien murriztearen eta, ahal den neurrian, urotan eragin onuragarria izatearren.

9. Estatu kideek beren neurri-programak onartu eta hiru hilabeteko epean programa horien berri eman beharko diete Batzordeari eta interesa duten gainerako estatu kideei.

10. 16. artikuluan agindutakoa alde batera utzi gabe, estatuak saiatu beharko dute programak onartu eta urtebeteko epean martxan jartzen direla ziurtatzen.

14. artikulua

Salbuespenak

1. Hartutako neurrien bidez ingurumen-egoera ona nahiz ingurumen-helburuak bete-betean lortzea ezinezkoa deneko kasuak identifikatu ahal izango dituzte estatuak beren itsas uretan, a)-d) idatz-zatietan emandako arrazoiak oinarritzat hartuta, edo hori finkaturako epean egiterik ez duteneko kasuak, bestela, e) idatz-zatian emandako arrazoiei jarraiki:

a) zerbait egitearen nahiz ez egitearen ondorioz, baina hori gertatzea dagokion estatuaren erantzukizuna ez bada;

b) naturaren eraginez;

c) ezinbesteko arrazoiengatik;

d) ingurumenaren gaineko kalteari gainjartzen zaizkion lehen mailako interes orokorreko neurriak hartzearen ondorioz itsas uren ezaugarri fisikoetan egondako aldaketen ondorioz (mugaz gaindiko inpaktuak ere hemen sartzen dira);

e) dagokion itsas uren egoera garaiz hobetzea galarazten duten naturako baldintzengatik.

Dagokion estatuak argi eta garbi zehaztu beharko ditu kasu horiek bere neurri-programan, eta behar bezala justifikatu beharko ditu Batzordearen aurrean. Kasuok identifikatzean, estatuak kontuan hartu beharko dituzte dagokion erregio nahiz azpi-erregioko gainerako estatu kideei eragindako ondorioak ere.

Dena den, dagokion estatuak *ad hoc* neurri egokiak hartu beharko ditu ingurumen-helburuak lortzen saiatzen jarraitu, b), c) eta d) idatz-zatietan finkaturako arrazoiek eragindako itsas uren egoeran kalte gehiagorik eragin ez, eta dagokion itsas erregio edo azpi-erregioko nahiz beste estatu kide batzuetako itsas uretan eragindako kalte murriztearen.

2. 1. paragrafoko d) idatz-zatian aipatzen den kasuan, aldaketa haiek dagokion itsas erregio edo azpi-erregioan nahiz beste estatu batzuen itsas uretan ingurumen-egoera ona lortzea behin betiko galarazten ez dutela ziurtatu beharko dute estatuak.

3. 1. paragrafoko 3. zatian aipaturako *ad hoc* neurriak neurri-programen barruan sartuko dira, ahal den heinean.

4. Estatu kideek 5. artikuluko 2. paragrafoan aipaturako itsas estrategietako elementu guztiak prestatu eta aplikaturako dituzte nahiz eta, hori egitean, ez duten neurri berezirik hartu beharko —8. artikuluan aipaturako hasierako ebaluazioa kenduta—

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

itsas ingurunerako arrisku nabarmenik ez badago edo kostua handiegia baldin bada itsas ingurunearentzako arriskuen aldean, betiere kalte gehiagorik eragiten ez dela ziurtatuz.

Bi arrazoi horietako baten ondorioz, estatu kideren batek batere neurririk hartzen ez badu, erabaki hori behar bezala justifikatu beharko du Batzordearen aurrean, eta ingurumen-egoera ona lortzea behin betiko eragozte galarazi beharko du, aldi berean.

15. artikulua

Erkidego-mailako jarduerarako gomendioak

1. Estatu kide batek bere itsas uren ingurumen-egoeran eragina duen arazoren bat antzeman eta arazo hori estatu-mailako neurriekin konpontzerik ez badu, edo arazoak nazioarteko hitzarmenen batekin edo Erkidego-mailako politikaren batekin zerikusia badu, horren berri emango dio Batzordeari, bere iritzia behar bezala justifikatuz. Batzordeak sei hilabeteko epean erantzun beharko dio.

2. Erkidegoko erakundeek esku hartzea beharrezkoa gertatzen denean, 1. paragrafoan aipatzen diren arazoei aurre egiteko neurri egokiak proposatu beharko dizkiete estatu kideek Batzordeari eta Kontseiluari. Gaiarekin zerikusia duten Erkidegoko legeetan besterik esaten ez bada, Batzordeak sei hilabeteko epean erantzungo die gomendio horiei eta, hala badagokio, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari bidalitako proposamenetan jasoko ditu gomendiook.

16. artikulua

Batzordearen jakinarazpenak eta ebaluazioa

13. artikuluko 9. paragrafoan agindutakoari jarraiki, jakinarazitako programekin Zuzentarau honetako baldintzak betetzen ote diren ebaluatuko du Batzordeak, estatu kide guztien kasuan; eta horrez gain, eskuragarri duten eta beharrezkoa den gainerako informazio guztia bidaltzeko eskatu ahal izango die estatuei. Bere ebaluazioa egitean, itsas erregio eta azpi-erregio desberdinetarako nahiz Erkidego osorako neurri-programen arteko koherentzia aztertuko du Batzordeak. Jakinarazpenak jaso eta sei hilabeteko epean, bere iritziz, bidalitako neurri-programak Zuzentarau honekin bateragarriak ote diren adieraziko die Batzordeak interesa duten estatuei, eta egokitzen jotzen dituen aldaketei buruzko jarraibideak emango ditu, halaber.

IV. KAPITULUA

EGUNERAKETAK, TXOSTENAK ETA JENDAURREKO INFORMAZIOA

17. artikulua

Eguneraketa

1. Kaltetutako itsas erregio eta azpi-erregio bakoitzari dagozkion estrategiak eguneratuta edukitzeaz arduratu behar dute estatu kideek.

2. 1. paragrafoa betetzeko, beren itsas estrategiak finkatzen dituztenetik aurrera, estatuek honako alderdi hauek berrikusi beharko dituzte sei urtetik behin, modu koordinatuan, eta 5. artikulua agindutako moduan:

- a) hasierako ebaluazioa eta ingurumen-egoera onaren definizioa, 8. artikuluko 1. paragrafoan eta 9. artikuluko 1. paragrafoan finkatuak, hurrenez hurren;
- b) 10. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki finkatutako ingurumen-helburuak;
- c) 11. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki finkatutako jarraipen-programak;
- d) 13. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki finkatutako neurri-programak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. 2. paragrafoan aurreikusitako berrikusetak egin eta gero eguneraketarik eginez gero, eguneraketa horien xehetasunak Batzordeari, itsas erregioei buruzko hitzarmenei eta kalteetako gainerako estatu kide guztiei jakinarazi beharko zaizkie argitaratu eta hiru hilabeteko epean, 19. artikuluko 2. paragrafoan agindutakoari jarraiki.

4. 12. eta 16. artikulua aplikatuko zaizkio artikuluko honi, *mutatis mutandis*.

18. artikulua

Tarteko txostenak

Neurri-programa bakoitza edo 19. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki egindako eguneraketa bakoitza argitaratu eta hiru urteko epean, programa aplikatuz lortutako aurrerapenei buruzko tarteko txostena bidali beharko diote estatuek Batzordeari.

19. artikulua

Kontsulta eta jendaurreko informazioa

1. Erkidegoko indarrean dagoen legeriari jarraiki, interesa duten alde guztiek Zuzentarau hau modu azkar eta eraginkorrean aplikatzen parte hartzeko aukera dutela ziurtatu beharko dute estatuek, ahal den guztietan martxan dauden kudeaketa-egitura eta erakundeekin batera jardunez, itsasoko itun erregionalekin, kontsultarako erakunde zientifikoekin eta kontsultarako kontseilu erregionalekin batera, esate baterako.

2. Beren itsas estrategiei nahiz egindako eguneraketen inguruko honako alderdi hauei buruzko laburpenak argitaratu eta jendearen esku jarri beharko dituzte estatuek, jendeak nahi dituen oharra egin ditzan:

- a) hasierako ebaluazioa eta ingurumen-egoera onaren definizioa, 8. artikuluko 1. paragrafoari eta 9. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki, hurrenez hurren;
- b) 10. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki finkatutako ingurumen-helburuak;
- c) 11. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki finkatutako jarraipen-programak;
- d) 13. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki finkatutako neurri-programak.

3. Ingurumen-informazioa eskuratzeari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/4/EE Zuzentaraua —2003ko urtarrilaren 28koa, ingurumen-informazioa jendearen esku jartzeari buruzkoa ⁽¹⁾— aplikatuko da.

2007/2/EE Zuzentaruari jarraiki, 8. artikuluekin eta 11. artikuluan finkatutako jarraipen-programekin bat etorritik egindako hasierako ebaluazioetatik ateratako datuak eta informazioa eskuratzeko aukera eta erabiltzeko eskubidea emango diote estatu kideek Batzordeari, Zuzentarau honi jarraiki dituen betekizunak bete ditzan, 20. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatiari jarraiki, Erkidegoko itsas ingurunearen egoera aztertzeko, bereziki.

8. artikuluekin eta 11. artikuluan finkatutako jarraipen-programekin bat etorritik egindako hasierako ebaluazioetatik ateratako datuak eta informazioa eskuragarri egon eta sei hilabeteko epean, datu horiek eta informazio hori Europako Ingurumen Agentziaren esku jarriko dira, halaber, hark bere egitekoa egin ahal izan dezan.

20. artikulua

Batzordearen txostenak

1. Zuzentarau honen aplikazioari buruzko lehen ebaluazio-txostena argitaratu behar du Batzordeak neurri-programa guztiak jaso eta bi urteko epean edo 2019a baino lehen, beranduenez. Hortik aurrera, Batzordeak sei hilean behin argitaratuko ditu txostenak, Europako Parlamentuan eta Kontseiluan.

2. Estatu kideek eta Erkidegoak itsas uretako ingurumena babesteko Erkidego-mailan nahiz nazioartean dauzkaten betebeharrak, konpromisoa eta ekimenak gauzatzeari dagokionez Zuzentarau honek egindako ekarpena ebaluatzeko txostena

(1) L 41 EO, 2003/02/14koa, 26. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

aurkeztu beharko du Batzordeak, 2012ko uztailaren 15a baino lehen. Txosten hori Europako Parlamentuan eta Kontseiluan aurkeztu beharko da.

3. 1. paragrafoan aipatutako txostenek alderdi hauek jasoko dituzte:

- a) Zuzentarau hau aplikatzeari esker izandako aurrerapenen azterketa;
- b) Erkidegoko itsas ingurunearen egoeraren azterketa, Europako Ingurumen Agentziarekin eta itsas ingurunearekin eta arrantzarekin zerikusia duten erakunde eta itun erregionalekin batera egina;
- c) itsas estrategien azterketa, haiek hobetzeko proposamenekin batera;
- d) 12. eta 16. artikuluei jarraiki estatu kideetatik jasotako informazioaren laburpena eta, 16. artikulua agindutakoari jarraiki, estatu kideek 15. artikuluekin bat etorri jakinarazitako informazioarekin, Batzordeak egindako ebaluazioen laburpena;
- e) estatu kideek 18. artikuluari jarraiki Batzordeari bidalitako txosten bakoitzari emandako erantzunaren laburpena;
- f) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak aurreko itsas estrategiari buruz egindako oharrei emandako erantzunen laburpena;
- g) Zuzentarau honetako helburuak lortzen Erkidegoko beste politika batzuek emandako laguntzaren laburpena.

21. artikulua

Eremu babestuetan egindako aurrerapenei buruzko txostena

Estatu kideek beranduenez 2013an emandako informazioa oinarritzat hartuta, Batzordeak txosten bat osatu beharko du 2014a baino lehen, itsas eremu babestuak sortzen izandako aurrerapenei buruz, aplikatu beharreko Erkidegoko legeak eta Erkidegoak eta estatuak hartutako nazioarteko hitzarmenak kontuan hartuta. Txosten hori Europako Parlamentuan eta Kontseiluan aurkeztu beharko da.

22. artikulua

Erkidegoaren finantzazioa

- 1. Itsas estrategiak sortzeak lehentasuna duenez, Zuzentarau hau aplikatzeko Erkidegoak dituen finantzazio-tresnak erabiliko dira, aplikatu beharreko arau eta baldintzekin bat etorri.
- 2. Estatu kideek prestatutako programak estatuaren eta Erkidegoaren artean finantzatu dira, dauden finantzazio-tresnak erabiliz.

23. artikulua

Zuzentarau hau berrikustea

Zuzentarau hau beranduenez 2023ko uztailaren 15ean berrikusi beharko du Batzordeak eta beharrezko aldaketak proposatuko ditu, hala badagokio.

V. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

24. artikulua

Egokitzapen teknikoak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. III., IV. eta V. eranskinak aldatu ahal izango dira zientzian eta teknikan egondako aurrerapenetara egokitzeko, 25. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorriz, eta itsas-estrategiak berrikusteko eta eguneratzeko 17. artikuluko 2. paragrafoan finkatzen diren epeak betez.

2. 25. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorriz,

a) I., III., IV. eta V. eranskinak aplikatzeko arau metodologikoak onartu ahal izango dira;

b) datuak (estatistikoak eta kartografikoak barne) bidaltzeko eta lantzeko formatu teknikoak onartu ahal izango dira.

25. artikulua

Komitea

1. Batzordeak komite baten laguntza izango du.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da. 1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan aipatzen den epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluko 1-4. paragrafoak eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da.

26. artikulua

Barne-zuzenbidean sartzea

1. Estatu kideek beharrezko xedapenak (legezkoak, erregelamenduzkoak nahiz administratiboak) onartu behar dituzte 2010eko uztailaren 15a baino lehen, Zuzentarau honetan agindutakoa betetzeko. Xedapenok jasotzen dituen testua berehala jakinarazi beharko diote Batzordeari. Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, Zuzentarau hau aipatu beharko da xedapenotan edo erreferentzia egin beharko zaio, ofizialki argitaratzen direnean. Estatu kideek finkatu beharko dute erreferentzia hori egiteko modalitatea.

2. Estatu kideek Batzordearen esku jarri beharko dute Zuzentarau honek araututako esparruaren barruan onartzen dituzten barne-zuzenbideko oinarriko xedapenak jasotzen dituen testua.

3. Itsas urik ez duten estatuek 6. eta 7. artikuluek agindutakoa betetzen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren xedapenak bakarrik aplikatuko dituzte. Xedapen horiek beren legeria nazionalean dagoeneko indarrean baldin badaude, estatuek Batzordeari jakinarazi beharko diote lege nazional horien testua.

27. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

28. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko ekainaren 17an.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea: H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea: J. LENARCIC

2008/56/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 164/19, 2008/6/25koa)